

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

**2026ko martxoaren 9ko Alkatetzaren 2026-0099. Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2026an ospatutako Zigoitiko udalerriko herrietako jaietako dirulaguntzen deialdia egin zen, norgehiagoka-prozeduraren bidez**

BDNS (Identif.): 893217.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/893217>).

#### **Lehenengoa. Erakunde onuradunak**

Dirulaguntzaren onuradun izan daitezke legez eraturta eta erregistratuta dauden Zigoitia udalerriko kontzejuak.

#### **Bigarrena. Helburua**

Dirulaguntzaren helburua da Zigoitia udalerriko herrietako jaiak eta/edo erromeriak finantzatzen laguntzea, honako xedeekin:

- Herritarrak, herriko jaien antolakuntzan eta gozamenean parte hartzera bultzatzea.
- Aisialdiaren eta kulturaren esparruko jarduerak egiten laguntzea, bizikidetzaberasten laguntzeko.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak herriko jaien arloko diru-laguntzak emateko ordenantza espezifikoan daude jasota. Ordenantza hori 2016ko apirilaren 20an onartu zen, eta 2016ko ekainaren 6ko ALHAOn argitaratu zen, 64. zenbakian.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

#### **Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 338.434.000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2027ko aurrekontuko udalerriko kontzejuen jaiegunitako diru-laguntza gisa.

Deitutako laguntzen gehieneko zenbatekoa 20.000,00 eurokoa da. Gehieneko zenbateko osoa zenbatetsia da, eta, beraz, diru-laguntzak emateko, diru-laguntza emateko ebazpena ematen den unean kreditu egokia eta nahikoa egon behar da. 2027ko ekitaldian onartzen den aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitako zenbatekoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak deialdian aplikatzea edo ez aplikatzea erabaki ahal izango du, ebazpena eman aurretik dagokion gastu-espeditentia izapidetu ondoren, beste deialdirik egin beharrik gabe.

Erakunde bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa honela kalkulatu da: aurrekontu-partidaren zuzkidura zati berdinetan banatuko da eskaera-kopuruaren artean, eta inola ere ezingo da diruz lagundu justifikatutako gastuaren ehuneko 100 baino gehiago.

Aurrekontu-partidan kreditu-soberakinik badago, diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoak gairiditu ahal izango du partidaren zuzkidura eskaera-kopuruaren artean erdibana banatuz ateratzen den zenbatekoa.

Hala ere, udal honek tramitazio berezia eman ahal izango du interes bereziko programa jakin batzuetarako, baldin eta diru-laguntzen guztizko zenbaketak ez badu inola ere gairiditzen Zigoitiko Udalaren aurrekontu orokorreko helburu horietarako aurrekontu-aplikazioetan esleitutako zenbatekoa.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak eta justifikazioa, zazpigarren puntuan aipatzen den dokumentazioarekin batera, aurkezteko gehieneko epea 2026ko abenduaren 30ean amaituko da.

#### **Seigarrena. Bestelako datuak**

Eskaerarekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerak eragindako gastuen egiaztagiriak: fakturak edo kontabilitate-agiriak, froga-balioa eta baliokidea dutenak: jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak.

Gastuen justifikazio modura ez dira onartuko ordainagiriak, fakturak, ticket-ak, etab., ez badi-tuzte garbi adierazten ondorengo datuak:

Jaulkitzailearen izena edo izen soziala, eta NAN edo IFK zk.

Jasotzailearen izen soziala eta IFK (dirulaguntza jasotzen duen erakundearen berbera izan behar du).

Gastuaren helburua.

Data.

BEZ: aplikatutako zerga mota(k).

Programen aleak, bertan Zigoitiko Udalaren babesletza aipatuta.

Ondategin, 2026ko martxoaren 16an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*